

SANTA ENGRACIA URTEGIKO IGERIALDIA

Araudia



Antolatzailea: Club Natación Santa Engracia

Data: 2023ko uztailaren 16a

Ordua: Lehenengo irteera 11:00etan

Herria: Legutio (Araba)

Lekua: Gurutzalde kalea, 9. Gurutze Gorriaren etxetxo ohia dagoen lekuan.

Kategoriak:

- Eskolakoa (A): 2009-2012an jaiotakoak.
- Absolutua (B): 2008an edo aurretik jaiotakoak.
- Dibertsitate funtzionala (C).

Distantziak:

- A: 600 m.
- B eta C: 1000 m (federatu gabeko pertsonentzat) edo 2000 m.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea 2023ko apirilaren 24an hasiko da, 9:00etan.

Izena emateko azken eguna 2023ko uztailaren 9a izango da, 23:59an (edo, bestela, plaza guztiak betetzen direnean).

Izen-ematearen prezioa 11 € izango da A kategorian.

B eta C kategorietan 13 € izango dira federatuentzat eta 16 € ez federatuentzat.

Izen-ematea <https://travesiasantaengracia.com/> webgunearen bidez egingo da.

Gehienez 300 plaza dago.

Inskripzioak pertsonalak dira eta besterenezinak. Izena emateak berekin dakar araudi hau oso-osorik onartzea, baita erosketa-baldintzak ere.

Behin inskripzioa eginda baja emateak hasierako prezioaren gaineko atxikipena dakar. Izena emateko unean emango dira baldintza horien xehetasunak.

Lesio baten kasuan, zenbatekoa osorik itzuliko da, medikuaren txostena aurkeztuz gero. Bajak travesia.sta.engracia@gmail.com helbidera bidali behar dira, izena emateko azken eguna baino lehen. Mezu horretan, gainera, dagokion informazioa erantsi beharra dago

(medikuaren egiaztagiria eta/edo bajaren arrazoia). Behin epemuga hori amaituta, bajak soilik lesioagatik onartuko dira.

Dorsalak, txanoak eta txipak goizeko 10:00etatik aurrera jaso ahal izango dira. Horretarako NANA aurkeztu behar da. Izen-ematearen egiaztagiria eramatea gomendatzen da, arazorik ez izateko.

PARTE-HARTZAILEAK

12 urte edo gehiagoko pertsonak izena eman ahal dute. Federatuak izan behar dira edo, bestela, izena ematearekin batera, nahitaezko aseguru kontratatu behar dute.

Era berean, 18 urtetik beherakoek igeriketa edo triatloi federazioen lizentzia aurkeztu beharko dute dortsala jasotzeko unean. Federatuta ez badaude, **tutorearen baimena** aurkeztu beharko dute.

ARROPA GORDETZEA

Gune bat egongo da, parte-hartzaileek beren gauzak uzteko eta arropaz aldatzeko.

Igerilari bakoitzak partaide-zenbakia eramango du besoan. Bere gauza guztiek ere zenbaki hori bera eramango dute.

Arropa gordetzeko ordutegia honako hau izango da:

- Irekiera: 10:00
- Itxiera: 15:00

DUTXAK

Dutxa-zerbitzua egongo da Legutioko udal-instalazioetan.

Ordutegia honako hau izango da:

- Irekiera: 10:00
- Itxiera: 16:00

MATERIALA

Nahitaezkoa da antolakuntzak emandako bainujantzia eta txanoa ibilbide osoan erabiltzea, proba hasten denetik amaitu arte. Parte-hartzaile batek horrela egiten ez badu, deskalifikatua izango da.

Ez dago baimenduta propultsioa edo flotazioa errazten duen material osagarririk erabiltzea. Salbuespenik egotekotan, antolakuntzak onartu beharko du berariaz.

Ez dago baimenduta uretako musika-erreproduzitaileak edo antzekoak erabiltzea, segurtasun-arrazoiengatik.

Neoprenoak, erlojuak, pultsometroak edo GPS aparatuak erabili ahal dira. Dena den, neoprenoa ez da nahitaezkoa.

Komeni da baselina edo olioak erabiltzea urradurak saihesteko. Komeni da, halaber, eguzkitako krema, igeriketako betaurrekoak eta txilibitua eramatea.

IRTEEREN AURREKO BRIEFINGA

Bi irteerak hasi baino ordu erdi lehenago, informazio-saio labur bat egingo da, ezarritako arauak gogorarazteko eta zalantzak argitzeko.

IRTEERAK

Irteerak esandako orduetan egingo dira. Epaille arbitroak emango du horretarako agindua, soinuak eta ikusizko seinaleen bidez.

ZERBITZU MEDIKOA ETA ASEGURUAK

Parte-hartzaile guztiek adierazi behar dute osasun-egoera onean daudela eta ez dagoela, haiek dakitela, proban parte hartzea eragoz dezakeen arrazoirik. Igerilariak beren erantzukizunpean onartzen dute proban parte hartzea.

18 urtetik beherakoek dagokien federazio-lizentzia edo gurasoen edo tutorearen baimen idatzia aurkeztu beharko dute, dortsala jasotzeko unean.

LAGUNTZA URETAN BERTAN.

- Hainbat piragua erabiliko dira, igerilariak ibilbide osoan zehar laguntzeko.
- Oinarrizko bizi-euskarria duen anbulantzia bat egongo da, osasun arloko pertsonalarekin. Gurutze Gorriko ontzi bat (C motakoa) ere prest egongo da, patroiarekin eta hainbat erreskatatzailearekin.
- Ertzaintzaren ontzi bat egongo da.

EMAITZAK

Emaitzak webgunean argitaratuko dira, helbide honetan:

<https://travesiasantaengracia.com/resultados>

ANOA-POSTUA

Proba amaitzean, antolatzaileek anoa-postu bat antolatuko dute, parte-hartzaileei janaria eta edaria emateko.

SARIAK

Proba amaitzean, hainbat sari zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean.

DESKALIFIKATZEA / PROBA UZTEA

Antolakuntzak eskubidea izango du, beharrezkotzat joz gero, edozein parte-hartzaile proba uztera gonbidatzeko, bere osasuna eta/edo segurtasuna edo gainerakoena arriskuan dagoela uste badu.

Honako hauek dira deskalifikatzeko arrazoiak:

- Ibilbide osoa ez egitea.
- Proba identifikazio-txanoarekin ez amaitzea.
- Erakundeak ezarritako segurtasun-neurriak ez errespetatzea.
- Hondakinak botatzea horretarako prestatu diren lekuetatik kanpo, edo ingurune naturala ez errespetatzea.
- Gainerako parte-hartzaileekin eta/edo antolatzaileekin mespretxuz eta kiroltasunik gabe jokatzeko.
- Aldez aurretik izena eman gabe parte hartzea.
- Osasun-zerbitzuen eta/edo antolatzaileen aginduak eta erabakiak ez errespetatzea.

Proba utzi nahi izanez gero, beso bat edo biak altxatzea izango da laguntza eskatzeko seinalea.

PROBA ALDATZEA

Baldintza klimatologikoez hala eskatzen badute, antolatzaileek proba aldatzeko edo eteteko eskubidea izango dute.

Egunean bertan proba aldatzea, neutralizatzea edo baliogabetzea: Egunean bertan proba bertan behera utzi, ibilbidea aldatu, ibilbidea murriztu edo ordutegia aldatu behar bada, ez da dirurik itzuliko, baldin eta ezinbesteko arrazoiengatik edo proba aurrera eramateko baldintza txarrengatik egiten bada.

Bajak kudeatzea: Izena eman ondoren parte-hartzaile batek baja ematen badu, ez zaio dirurik itzuliko. Ezin izango da parte-hartzailearen izena aldatu, ezta inskripzioa eskualdatu ere.

Ez da inskripziorik onartuko epez kanpo.

BALDINTZAK

Proban izena emateak konpromiso hauek onartzea dakar:

- Ez dago denbora mugarik ibilbidea egiteko, baina parte-hartzaileak gai izan behar du proba zailtasunik gabe amaitzeko.
- Lapurretarik, objektuen galerarik edo lesiorik izanez gero, antolakuntzak ez du erantzukizuna bere gain hartuko.
- Parte-hartzaileek beren irudiak eta datuak erabiltzeko baimena ematen diote erakunde antolatzaileari. Bestela, horrela jakinarazi behar diote, posta elektronikoren bidez.
- Parte-hartzaileek araudia onartzen dute, eta, beharrezkoa izanez gero, probaren aldaketa onartzeko konpromisoa hartzen dute.

Informazio gehiago:

Web: <https://travesiasantaengracia.com>

E-posta: travesia.sta.engracia@gmail.com